

## **ERRENTERIA / Haur Liburutegian 'Kontuari kontu' erakusketa eskainiko da**

Galtzagorri Elkarteak 'Kontuari kontu' euskal tradiziozko ipuin bilduma aurkeztu nahi du. Erakusketa honetan tradiziotik hartu eta moldatu diren lau ipuin eder agertzen dira. Ipuin bilduma hau transmititzeko jolas espazio bat sortu da. Espazio horretan bi plano gurutzatzen dira: ametsaren mundua eta errealitatea, bien arteko mugan argiz eginiko egitura bat eta musika. Espazio sinple horretan gauzatzen dira gure ipuinak eta horien harian esperientzia bizi bat, ametsezko mundu horren parte izateko. Jolas literario bat gauzatzen da beraz, espazio honetan, eta aukerako ipuin hauen liluran sarturik, ikasleek entzun, irakurri eta amets egingo dute bere baitara bilduz ipuin hauen lilurapean.

### **Diskoa**

Erakusketa honetan eskuragarri izango da ipuinen bilduma eta ipuinak grabaturik duten diskoa. Areto guztiaren ideia eta sortze prozesua Itziar Zubizarretaren eskutik dator; espazioa, Itsaso Azkarate eta Karlos Odriozola; musika, Zuriñe Fernández de Gerenabarrena; ipuinak, Itziar Zubizarreta; kaxaren diseinua: Aitziber Alonso; ipuinen ilustratzaileak: Jon Zabaleta, Eider Eibar, Maite Gurrutxaga, Iñaki Martiarena, Mattin; ahotsak, Patxi Zubizarreta eta Itziar Zubizarreta eta aretoaren dinamizazioa, Mari García Ladero.

### **Bisitak**

Erakusketa, bihar hasi eta 22a bitarte Xenpelar Etxeko 1. solairuan izango da ikusgai. Goizez ikastetxeentzako bisita gidatuak antolatu dira, arratsaldez berriz, publiko osoari irekia egongo da 16.30-20.00 orduategian. Sarrera librea izango da. Arratsaldeko bisitak martxoaren 21 bitarte egin ahal izango dira.